

### 3

## **AURREALDE, ATZEALDE**

Era honetako lehen hitzak (*gain, goi, azpi, behe, barne, barru, barren, aurre, atze, aitzin, gibel, kanpo*) Axularrengan agertzen dira, *aitzin alde, gibel alde, gainalde* eta *barrenalde*, hain zuzen. Harrez gero *aitzinalde* eta *gibelalde* aski ohikoak dira literatura tradizioan eta ildo beretik *aurrealde* (Lardizabal, Soroa, D. Agirre...), *atzealde* (Iztueta, Lardizabal, Uriarte...), *azpialde* (Duvoisin, Txirrita...), *barnealde* (Iraizoz...), *barrenalde* (Pouvreau, Arrue...), *barrualde* (D. Agirre, Azkue...), *behealde* (Agirre Asteasukoa, Iztueta, Apaolaza...), *gainalde* (Mendiburu, Duvoisin...), *goialde* (Kardaberaz, Iztueta, Arrese Beitia...), *kanpoalde* (Duvoisin, Uriarte, J. Etxepare, Etxeita...) e.a.

Mende honen erdialdera edo, *k-dun* formak (*barrukalde, atzekalde...*) hasi ziren Hegoaldeko euskara idatzian agertzen, *barruko alde, atzeko alde* esapideen batze baten ondorioz. Joera hau asko hedatu da azken urteotan, nahiz eta tradizioko formak ez diren desagertu, batez ere idazle ereduakoen artetik.

Hortaz, Euskaltzaindiak gogorarazten du, euskara idatzian, *aurrekalde, atzekalde, barrukalde, gainekalde, azpikalde, goikalde, behekalde, kanpokalde* bezalako forma berri eta batasun hausleak ez direla egokiak euskara batuan, eta hau erabakitzen du:

**Erabil daitezela, oraintsu arte egin den bezala, esapide osoak: *aurreko alde, atzeko alde, barruko alde, gaineko alde, azpiko alde, goiko alde, beheko alde, kanpoko alde* e.a., edota forma atzizkidun **ja-torrak**: *aurrealde, atzealde, barrualde, gainalde, azpialde, goialde, behealde, kanpoalde* e.a.**

Honek ez du esan nahi horretarako tradizio mintzatua dagoenean *aurreko alde, atzeko alde* formak *aurrekalde* eta *atekalde* ebakitzea gaitzesten denik.

Bibliografia: Orotariko Euskal Hiztegia, s.v. *aitzinalde, atzealde, aurrealde, azpialde, barnealde, barrenalde, barrualde, behealde*.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)